



## ZEGAMA KO UDALA

### **2023KO OTSAILAREN 7AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO ABENDUAREN 20KO ETA 2023KO URTARRILAREN 17KO BILKUREN AKTAK).
- 2.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIAREN ONARPEN PROPOSAMENA. EUDEL.
- 3.- PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN AKATSEN ZUZENKETA.
- 4.- ZEGAMA KO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.
- 5.- AMER SPORTS SPAIN, S.A.U. REKIN ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAREN BABESERAKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA.
6. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).  
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).  
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

### **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO ABENDUAREN 20KO ETA 2023KO URTARRILAREN 17KO BILKUREN AKTAK).**

Alkateak, 2022ko abenduaren 20ko eta 2023ko urtarrilaren bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira



## ZEGAMAKO UDALA

adierazitako aktak.

### **2.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIAREN ONARPEN PROPOSAMENA. EUDEL.**

EUDEL-EK UDALHITZ hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruz, zirkularra bidali du, Udalei, zenbait neurri har ditzaten gomendatuz.

Zentzu horretan, honako gomendio hau egiten zaie EAEko udalei:

"2022.12.24an, BOEn *abenduaren 23ko 31/2022 Legea* argitaratu da, *2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa*.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluaren arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:

"19. artikulua. *Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.*

(...) *Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez.*

*2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:*

*a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.*

*b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.*

*c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundea Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.*

*Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)"*

Aurrekoa ikusita, eta EUDELek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, ordainsarien arloan 31/2022 Legeak izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da Euskadiko udalei honako hau adieraztea:

#### GOMENDIOA

a) Ordainsarien igoera orokorra legeaz onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdina izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzinasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, % 0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako



## ZEGAMA KO UDALA

dutena betetzea gomendatzen da. Horretarako EUDELe horren guztiaren berri emango du.”

Gomendioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, aho batez honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Ordainsarien igoera orokorra lege onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdina izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzinateari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

### **3.- PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN AKATSEN ZUZENKETA.**

Idazkariak azaltzen du, Gizarte langilea, Liburuzaina eta gazte koordinatzailea, eta Administrazio Orokorreko Administrazio laguntzailea plazak eta balio anitzeko peoia lanpostua egonkortzeko merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuaren deialdia, oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak onartzeari buruzko 05/1222 dekretuan akats batzuk zuzenduta ikusi zela.

Zentzu horretan azaltzen da, Liburuzaina eta gazte koordinatzailea, eta Administrazio Orokorreko Administrazio laguntzailea plazak osagarri espezifiko zenbateko berdina zutela jasotzen zela, baina talde desberdinetan sailkatuta egonik, zenbateko horiek ez ziren zuzenak.

Osagarri espezifikoaren zenbatekoak, Udaltzarrak 2022ko abenduaren 20an onartutako Lanpostuen Zerrendan zuzen jasotzen baziren ere, 2022ko abenduaren 30ean, 247 zk. duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, argitaratu ziren 20/21 Legearen 6. eta 8. Xedapen Gehigarrietatik eratorritako deialdian jasotakoak ere zuzentzea zegoen eta horiek jarraian agertzen duen eran zuzendu dira (urtarrilaren 27ko Alkatetza Ebazpena)

\* Liburuzaina eta gazte koordinatzailea plazarako.

— *Hurrengo hau dioenean:*

Berariazko osagarria: 14.805,50

— *Beste hau esan behar du:*

Berariazko osagarria: 13.111,94

Zentzu horretan, zuzenketa hori onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera adierazitakoaren arabera helarazi dela azaltzen da.

Udaltzarra, jakinaren gainean geratzen da.

### **4.- ZEGAMA KO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

“Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa bideratzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

1.- Litzitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2018-09-27

2.- Eskaintzen aurkezpena: 2018-10-15 arte, 15.00 orduak.

3.- “A” kartazalaren irekiera, “kontratatze gaitasuna, kaudimena eta balio judizio bidez balioztatu daitezkeen irizpideak”: 2018-10-16 11:45 orduetan.



## ZEGAMA KO UDALA

4.- "B" kartazalaren irekiera "diru-proposamena eta automatikoki balioesteko irizpideak": 2018-10-16 13:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 16an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonsori 1234H NA (azken lau zenbakiak) esleitzea.

Zegozkion agiriak aurkeztu ondoren, Udalbatzarrak, 2021ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonso jaunari esleitzea erabaki zuen, hurrengo era honetan:

Prezioa: 1.350,00 euro gehi BEZ hilabeteko.

Egite epea: Bi (2) urte, luzagarria gehienez sei (6) urte egin arte.

Bermearen zenbatekoa: 2.500,00 euro.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak.

Zentzu horretan, eta hasierako esleipenetik bi urte igaro direla kontuan hartuz, kontratu horren urtebeteko luzapena formalki onartzea dagokio.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa urtebetez luzatzea onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Eduardo Cuesta Alonso jaunari jakinaraztea.

### **5.- AMER SPORTS SPAIN, S.A.U. REKIN ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAREN BABESERAKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA.**

Alkateak Amer Sports Spain SAUrekin (SALOMON markaren komertzializatzailea dena) adostutako babesletza-kontratuaren berri eman du. Horren helburua lankidetzaren oinarri batzuk ezartzea da, aldeek lankidetzaren arautu ahal izan dezaten Zegama-Aizkorri ekitaldiaren antolaketaren eta sustapenaren esparruan.

Udalbatza honek, aurreko ekitaldietan egin den bezala, egokitzat irizten du Zegama-Aizkorri proba marka horrekin lotzen jarraitzea eta enpresa horrekin babesletza-kontratu bat egitea, era berean, udalerraren irudiaren hedapena bermatze aldera.

Publizitate-babesletzako kontratu baten aurrean gaudela iritziz, horren bidez, babesleak, kirol, ongintza, kultura, zientzia edo bestelako jarduerak egiteko dirulaguntza baten truke, babeslearen publizitatean laguntzeko konpromisoa hartzen du.

Espedientea eta bertan jasotako txostenak ikusirik, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

LEHENENGOA.- Zegama-Aizkorri Maratoia burutzeko, Amer Sports Spain S.A.U. (Salomon markaren komertzializatzailea dena) enpresarekin adostutako 2023-2024-2025erako babes kontratua sinatzea onartzea.

BIGARRENA.- Babes-kontratu horretan alderdien arteko harremana arautuko duen kontratu pribatuaren testua onartzea, administrazio-espedientean jasotako baldintzetan.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea sinadura bideratzeko.



## ZEGAMAKO UDALA

### 6. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkutatik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 09/0123 erabakia, urtarrilaren 17koa, egurra ateratzeko baimena eman eta fidantza ezartzeari buruzkoa.
- 010/0123 erabakia, urtarrilaren 19koa, NED SUMINISTRO GLP S.A.. enpresari 2022 ekitaldiaren 2.seihileko epeari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren hornidura garraiatzeko instalazioak direla eta, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 011/0123 erabakia, urtarrilaren 19koa, ORANGE ESPAGNE S.A.U. enpresari 2022 ekitaldiko 2.seihilekoaren epeari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren hornidura garraiatzeko instalazioak direla eta, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 012/0123 erabakia, urtarrilaren 19koa, usoen kontrola egiteko zerbitzua esleituz (1.497,71 euro).
- 013/0123 erabakia, urtarrilaren 27koa, egonkortze prozesuko akatsen zuzenketa.
- *014/0123 erabakia, urtarrilaren 30ekoa, 1 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila 2); guztira 16.761,35 euro onartuz.*
- 015/0123 erabakia, urtarrilaren 30ekoa, kreditu gaikuntza espedienteari hasiera emanez.
- 016/0123 erabakia, urtarrilaren 30ekoa, kreditu gaikuntza espedientea ebatziz.
- 017/0123 erabakia, urtarrilaren 31koa, Eudelek proposatutako ordainsari igoerei buruzkoa.
- 01/0223 erabakia, otsailaren 3koa, Mega enpresak zaborren ordainketan eskatutako salbuespena onartuz.
- 02/0223 erabakia, otsailaren 6koa, Ormazpei S.L. enpresari, Ugarte Zelai 12 kalean (11. Eremuko Olaberria A.20.11.3. partzelako 1. ataria) kokatzen den eraikinean egindako egindako 3.C etxebizitzaren lehen erabilpeneko udal baimena emanez.
- *03/0223 erabakia, otsailaren 6koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.*
- *04/0223 erabakia, otsailaren 7koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.*

### 7.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak, erreka ondoko ingurua babesteko (hesia jartzea) eskaera zein egoeratan dagoen galdetzen du, kontutan edukita ere, inguruan ingeles akademia martxan jarri dela eta haur asko egoten direla. Alkateak adierazten du kontsultatuko duela aginpidea duen zerbitzuarekin.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berroegita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.